

GOBERNU BATZARRA

2016. 06. 20

Alkatea:

Olatz Peon Ormazabal

Zinegotziak:

**Patxi Amantegi Zubiria
Nerea Letamendia Belloso
Jokin Azkue Arrastoa
Iñigo Alonso Sarasibar**

Idazkaria:

Jose Luis Unanue Ugalde

Kontuhartzaitzako Teknikaria:

Paulino Alonso Eraso

Tolosako Udaletxean, bi mila eta hamaseiko ekainaren hogeian, goizeko 08:00etan Gobernu Batzarra bildu da ohizko bilera egiteko. Mahai-burua alkatea izan da eta alboko zinegotziak agertu dira, eguneko gai zerrendan agertzen diren puntuak tratatzeko.

1.- Aurreko akta onartzea.

2.-Ferialeko teilatua eta leihoak konpontzeko obren 2. ziurtagiria (77 faktura).

3.- Tolomendiri dirulaguntza.

4.- Iurramendi Egoitza. Maiatzako faktura.

5.-19/2016 zenbakia duen faktura-zerrenda.

1.- Aurreko akta onartzea.

Alkateak bilerari hasiera eman ondoren, 2016ko ekainaren 13an egindako batzarraren akta aztertu eta aho batez onartu da.

2.- Ferialeko teilatua eta leihoak konpontzeko obren 2. ziurtagiria (77 faktura).

Tolosako Udalak Construcciones Cubiertas Pagola, SL, enpresari, esleitu zion Ferialeko teilatua eta leihoak konpontzeko proiektuko obren kontratua; 166.213,56€koa (BEZa barne) izan zen esleipenaren zenbatekoa.

Orain arte aurkeztu den ziurtagiria honakoa:

Ziurgagiri zenbakia.....Faktura zenbakia..... Zenbatekoa

1. ziurtagiria..... 64 19.349,85€

GUZTIRA..... 19.349,85€

Orain aurkezturiko ziurtagiria, obrako bigarrena, honakoa da:

Ziurgagiri zenbakia.....Faktura zenbakia..... Zenbatekoa

2. ziurtagiria..... 77 108.492,81€

Ziurtagiri hau azterturik, Gobernu Batzar honmek, aho batez eta alkateak emanako ahalmenez baliatuta,

E R A B A K I D U

LEHENA.- Onartzea Ferialeko teilatua eta leihoak konpontzeko proiektuko obren 2. ziurtagiria (77 zk. duen faktura); 108.492,81€ (BEZ barne).

BIGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Cubiertas Pagola, SL, enpresari eta Kontuhartzaitzari.

3.- Tolomendiri dirulaguntza.

Tolomendirekin bi hitzarmen sinatu ziren 2015eko maiatzaren 5ean urte baterako; alde batetik, asteroko azoka dinamizatzeko eta, bestetik, Ordiziako udala eta Goimen-ekin lankidetzat hitzarmena. Urtea igaro da eta orain bi hitzarmen horietan adostutako dirulaguntzaren likidazioa egin behar da. Horretarako, Tolomendik aurkeztu ditu beharrezkoak diren dokumentuak.

Aipatutakoa kontuan izanik, eta Merkataritza, Feriak eta Turismo batzordeak jaulki duen diktamenarekin bat etorriz, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

E R A B A K I D U

LEHENA.- Asteroko azoka dinamizatzeko Tolomendirekin adostutako lankidetzat hitzarmena, 2015-2016 urte mugari dagokiona, likidatzea eta, ondorioz, aipatutako erakundeari 5.230,18€-ko dirulaguntza ematea.

BIGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitzari, Merkataritza, Feriak eta Turismo batzordeari eta Tolomendiri.

4.- lurramendi Egoitza. Maiatzako faktura.

lurreamendi egoitzak maiatzako kuoten likidazioa aurkeztu du.

Hori horrela, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

E R A B A K I D U

LEHENA.- lurreamendi egoitzari ordaintzea maiatzako kuoten likidazioari dagokion zenbatekoa, **17.153,85 €**-koa, honela banatuta:

Autonomoen kostua: 649,76 €

Elbarrien defizita: 16.504,09 €

BIGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitzari eta Osasun eta Gizarte Zerbitzuetako departamentuari.

5.-19/2016 zenbakia duen faktura-zerrenda.

Kontuhartzaitzak **19/2016** faktura zerrenda aurkeztu du; **192.928,34€**-koa, hain zuzen ere.

Hortaz, zerrenda azterturik, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

E R A B A K I D U

LEHENA.- **19/2016** faktura zerrenda onartzea.

BIGARRENA.- Onarpenaren berri ematea Kontuhartzaitzari.

Eta besterik gabe, bilera amaitutzat jo da 10:00etan.

ALKATEA

IDAZKARIA

Olatz Peon Ormazabal

Jose Luis Unanue Ugalde

